



▶ Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava



Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua  
Servicio de Viticultura y Enología

## **TXOSTENA, ARABAKO ERRIOXAKO ETA ARABAKO TXAKOLINAKO MAHASTIEN EGOERAREN GAINEKOA, 2019KO ABUZTUAREN 07KOA**

Uztailaren azken egunetan eta abuztuaren hasieran, ekaitzak egon dira, zeintzuk modu heterogeneoan eragin dioten, intentsitate eta kokapenari dagokionez, Arabako lurraldeari, bai Arabako Errioxari bai Aiaraldeari. Ekaitzek botatako euria lasaitu handia izan da mahastientzat, lehortearen zantzuak agertzen hasita zeuden unean.

Halaber, azken 15 egunetan bero itogarria errepikatu da, uda hasieran izandakoaren jarraipena, marka guztiak hautsi dituen. Muturreko beroek hazkunderaren geldialdi edo moteltze begetatiboa eragin dute, eta lurruntze eta transpirazioaren ondorioz gertatutako ur galera uda arrunt batekoa baino handiagoa izan da; eta hori guztia neguko eta udaberriko ur erreserbak aurten oso mugatuak direnean.

Arabako Errioxako zona zehatzetan, batez ere Bastida inguruan, ekaitzen intentsitateak eta denbora laburrean botatako prezipitazio kopuruak kalteak eragin ditu, baita une batzuetan euriarekin batera jausitako txingorrak ere. Horrela bada, abuztuaren batean 30 litro/m<sup>2</sup>-ko erregistroak egon ziren, txingor pixka batekin. Arabako Errioxako beste leku batzuetan ere (Guardia, Lapuebla, Eltziego...) kazkabarra bota du, baina apenas kalterik sortu gabe. Gaurko egunez, ia astebetetz ekaitz gogorrak izan ostean, mahastiek ondo jasan dute, nahiz eta pikor batzuetan orbainak ageri diren eta orri batzuk apurtuta dauden.

Fenologiari dagokionez, mahasti gehienak une honetan L egoeran daude (mahats mordo itxia), eta mahats mordo batzuk kolorez aldatzen hasi dira (M1 egoera, kolore aldaketaren hasiera). Fase fenologiko horiek 7 eta 10 egun arteko atzerapena adierazten dute urte arrunt batekin alderatuta. Garai honetan, mahats bilketarako hilabete eta erdi falta denean, atzerapenaren ondorioz, Arabako Errioxan mahatsa aurreko urteetan ohikoa dena baino egun batzuk geroago helduko da. Aiaraldean egutegia ohiko egoeratik hurbilago dago, nahiz eta atzerapen txiki bat duen.

Une honetan, mahastiak babesteko produktu zehatzak erabiltzen ari dira, batez ere ondoen aurkakoak. Lurzati sentikorrako batzuetan oidioa sortu da, eta euria eta gero mildiua agertzeko aukerak handitu dira. Botrytisaren aurkako prebentzio tratamenduak ere egiten ari dira. Izan ere, orain da unea mahastietan kalteak sor ditzakeen balizko infekzio hori prebenitzeko, batez ere barietate zurien mahastietan edo sentikorrakoak direnetan. Mahastietako pikorren % 5 edo 10ak

kolorea aldatuta daukan garaia da unerik eraginkorra tratamendua egiteko, lehenago beste tratamendu bat egin izana gorabehera.

Mahasti gehienetan sitsaren bigarren belaunaldia hegaldia egiten ari da. Sits kopurua neurtzeko tranpetan atzeman den kopuru handiak adierazten du tratamenduak egitea komeni dela, ez bada bestelako ordeko sistemak dituela izurritearen aurka. Ez da ahaztu behar intsektu horrek mahats mordoetan egiten dituen ziztadak botritisaren ahalezko guneak direla.

Hala ere, gaur egun, mahastiak osasun egoera bikaina dauka izurrite eta gaixotasunei dagokionez. Pikor askeek eta mahats mordo txikiek heltzea eta osasuna mantentzea erraztuko dute. Baina, kontrapuntu gisa, mahasti sentikorragoetan estres hidrikoa agertzen hasi da. Uzta, a priori, Errioxako eta Arabako Txakolinako jatorri deiturek zehazten duten etekin muga baino zertxobait txikiagoa izango da.

Laburbilduz, mahastiaren egoera ona da oro har, atzerapen pixka batekin bai Arabako Errioxan bai Arabako Txakolinaren eremuan; lehorre zantzuak sakonera txikiagoa duten mahastietan, osasun bikaina eta uzta orekatua. Datozen egunetan sasoi erabakigarri batean sartuko gara, kolore aldaketarena, mahats bilketaren azken emaitza markatuko duena.

Guardia, 2019ko abuztuaren 7a

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua